

OÑATIKO UDALA

Auzo-taxi programarako 2025ko dirulaguntza deialda.

Udal Tokiko Gobernu Batzarrak 2025ko martxoaren 20an egindako bileran, besteak beste, ondoko erabakia hartu du:

ERABAKITZEN DU

Lehenengo.

Onestea auzo-taxi programarako dirulaguntza horien 2025ko deialdia, erabaki honen eranskinean jaso dena.

Bigarren.

Deialdirako 15.376,56 €, €-ko gastua baimentzea, kontu sail honen kargura: 1 1104.227.170.00.99 (5075) 2025.

Baimendutako gastua handitu ahal izango du aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena esleituta duen organoak, dirulaguntza ematea ebatzi baino lehen. Dena den, horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko.

AYUNTAMIENTO DE OÑATI

Convocatoria pública 2025 de las subvenciones del programa auzo-taxi.

La Junta de Gobierno Local reunida el 20 de marzo de 2025, ha adoptado entre otros el siguiente acuerdo:

ACUERDA

Primero.

Aprobar la convocatoria de 2025 del otorgamiento de ayudas del programa auzo-taxi, que se acompañan como anexo al presente acuerdo.

Segundo.

Autorizar un gasto por importe de 15.376,56 €, para hacer frente a la convocatoria, con cargo a la partida 1 1104.227.170.00.99 (5075) 2025.

El importe del gasto autorizado podrá ser incrementado, con carácter previo a la resolución de las solicitudes presentadas, por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía de la modificación, sin que ello dé lugar a una nueva convocatoria.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari.

Interesatuak erabaki honen aurka zuzenean Administrazioarekiko Auzi Errekurtoa aurkeztu dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik Berraztertze Hautazko Errekurtoa aurkezteko Gobernu Juntari, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean.

Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzearen berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurso aurkeztu daiteke.

Esta resolución es definitiva y pone fin a la vía administrativa.

Los interesados podrán interponer recurso contencioso administrativo contra esta resolución en los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente a la publicación del presente anuncio.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante la Junta de Gobierno, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación.

En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

ERANSKINA

Auzo-taxi programarako 2025ko dirulaguntza deialdia

1.- Oinarri arautzaileak

2023ko auzo-taxi programaren oinarri arautzaileak 2023ko apirilaren 19an argitaratu ziren GAO-n (Udal Osoko Bilkurak 2023ko martxoaren 30ean aurrez onartuta). 2023ko azaroaren 16k GAO-n prezioaren inguruko zuzenketak argitaratu ziren.

2.- Baldintzak eta onuradunak

Deialdi honetako laguntzak eskuratu ahal izateko, aurreko atalean aipatutako erabakiaren bidez onartu zirenetatik hirugarren oinarri arautzailean ezarritako baldintzak bete beharko dituzte

ANEXO

Convocatoría 2025 del programa de ayudas auzo-taxi

1.- Bases reguladoras

Las bases reguladoras del programa auzo-taxi 2023 fueron publicadas en el BOG el 19 de abril de 2023 (aprobado previamente por el Pleno Municipal el 30 de marzo de 2023). El 16 de noviembre de 2023 se publicaron en el BOG las correcciones a los precios

2.- Requisitos y personas beneficiarias

Podrán acceder a las ayudas contempladas en la presente convocatoria aquellas personas que cumplan los requisitos establecidos en la base reguladora tercera, de las aprobadas mediante el acuerdo citado en el apartado anterior

3.- Laguntzen xedea

Laguntza hauen xedea da garraio publikoko zerbitzu erregularra erabiltzerik ez duten landa-auzoetako biztanleei udalerrri barruan bidaiatzeko taxi zerbitzua diruz laguntzea, modu jasangarri eta egoki batean herri-gunera gerturatu ahal izateko.

4.- Aurrekontuko kredituak

Deialdi honen gastu osoa 15.376,56 €, eurokoa da, eta 2025eko ekitaldiko aurrekontuko kontu sail honen kargura emango da: 1 1104.227.170.00.99 (5075) 2025.

6.- Diru-laguntzaren zenbatekoa

Laguntzen zenbatekoa 5. oinarri arautzailean xedatutakoaren arabera ezarriko da.

7.- Eskakerak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa

Dirulaguntza eskaerak urte osoan zehar egin ahalko dira Udal Erregistroan. Eskaera-orria Zerbitzuak eta Landa Garapen departamentura zuzendu beharko da. Eskaera orriarekin batera honako agiriak aurkeztu beharko dira:

- a) Eskabide-orria orokorra eskatzaileak edo ordezkariak behar den moduan beteta eta sinatuta aurkeztuko da.
- b) Eskatzailearen NANA. Eskaera beste pertsona baten izenean egiten bada, tramiteak beste baten ordezkari izateko inprimakia behar bezala beteta aurkeztu beharko da gainontzeko dokumentuekin batera.
- c) Erantzukizunpeko adierazpena, non adierazten den eskatzailea ez dagoela sartuta 38/2003 Legeak, 13. artikuluan aurreikusitako debekuetako batean ere.

3.- Objeto de las ayudas

El objeto de estas ayudas es subvencionar el servicio de taxi para viajar dentro del término municipal a los habitantes de barrios rurales que no puedan utilizar el servicio regular de transporte público, con el fin de aproximarse de forma sostenible y adecuada al núcleo urbano.

4.- Créditos presupuestarios

El gasto total en la presente convocatoria asciende a 15.376,56 €, con cargo a la siguiente partida del presupuesto del ejercicio 2025: 1 1104.227.170.00.99 (5075) 2025

6.- Cuantía de las subvenciones

El importe de las ayudas se establecerá de conformidad con lo dispuesto en la base reguladora 5.

7.- Solicitudes y documentación a presentar

Las solicitudes de subvención podrán realizarse durante todo el año en el Registro Municipal. La solicitud deberá dirigirse al departamento de Servicios y Desarrollo Rural. La solicitud deberá ir acompañada de la siguiente documentación:

- a) La instancia general debidamente cumplimentada y firmada por la solicitante.
- b) DNI de la persona solicitante. En caso de que la solicitud se realice a nombre de otra persona, se deberá cumplimentar en la solicitud esta representación junto con los documentos que en el mismo se indican.
- c) Declaración responsable, donde se recoge que la persona solicitante no se halla incurso en ninguna de las prohibiciones recogidas en el artículo 13 de la Ley 38/2003, Ley General de Subvenciones.

d) Zinpeko aitorpena, non jasoko den xede bera finantzatzeko beste entitate edo erakunde batzuei eskatutako edo eskatzea aurreikusi diren diru-laguntzak zeintzuk diren, honako hauek zehaztuta: erakundearen izena eta jasotako edo eskatutako diru-laguntza.

Udalaren esku dauden datuen edo datuen bitartekaritza- plataformaren bidez eskatuko diren zerbitzuak:

GFA: zerga-betebeharrak egunean izatearen kontsulta.

Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia: Gizarte Segurantzaren betebeharretan egunean egotearen kontsulta.

Udala: Errolda.

Eskabideak edo dokumentazio lagungarriak akatsik izanez gero edo osatugabeak badira, interesdunei hamar eguneko epea emango zaie atzemandako akatsak konpontzeko (39/2015 Legearen 68.1 art.). Epea igarota, horrelakorik egin ezean, eskariari uko egin zaiola ulertuko da, betiere 39/2015 Legearen 93 eta 94 artikuluetan aurreikusitako moduan ebazpena eman ondoren. Horiez gain, dirulaguntzak emateko beharrezko deritzon datu osagarriak eska ditzake Udalak.

Eskaera egitean, eskatzaileak oinarri hauek baldintzarik gabe onartzen ditu.

9.- Jakinarazpena

Prozeduraren ebazpena interesdun guztiei jakinaraziko zaie, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 40. artikuluan xedatutakoaren arabera.

d) Declaración jurada de las solicitudes de subvención realizadas o que se prevea realizar a otras entidades o instituciones para la financiación de este mismo objeto, especificando nombre de la institución y subvención recibida o solicitada.

Servicios que se solicitarán mediante la plataforma de intermediación de datos o datos que obran en poder del ayuntamiento:

D.F.G.: Consulta de estar al corriente de obligaciones tributarias.

Tesorería General de la Seguridad Social: Consulta de estar al corriente de las obligaciones de la Seguridad Social.

Ayuntamiento: Empadronamiento.

Cuando la instancia de solicitud o la documentación que debe acompañarla adolecieran de algún error o fueran incompletas, se otorgará a los interesados un plazo de diez días para subsanar los defectos detectados (art.68.1 de la Ley 39/2015), transcurrido el cual, sin que lo hubieran hecho, se les tendrá por desistidos de su petición, previa resolución dictada en los términos previstos en los artículos 93 y 94 de la Ley 39/2015. Además de ello, el Ayuntamiento podrá solicitar la información complementaria que estime precisa.

La presentación de la solicitud por parte de la persona solicitante conlleva la aceptación incondicional del contenido de las presentes bases.

9.- Notificación

La resolución del procedimiento será notificada a todas las personas interesadas, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 40 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.